

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	Euskara eta kultura eta UEMA		
IRAUPENA	Ordubete eta erdi	EGUNA	2016-06-13
GAIA		DEIALDIA	20:30
PARTE HARTZAILEAK			
Jesus Gorrotxategi	Arantzazu Baztarrika		Ezin etorria adierazi dute:
Aratz Igartzabal	Nekane Agirre		Jokin Murua
Jokin Matxinandiarena	Iñigo Igartzabal		Marian Bidegain
Eresti Oiarbide	Leire Murua		
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK		
UDABERRI KULTURALA	<p>Oraindik bukatu ez bada ere (igandeko antzerkia falta da), oro har, balorazioa ona izan da. Datorren urterako kontuan hartzeko hainbat kontu:</p> <ul style="list-style-type: none"> Hartu-eman ikastaroak: Lehendik mahai gainean dauden ideiak: <i>Garagardoa egitea</i> (Iban Maiz eta Iker Etxezarreta), <i>Baratzeen zaintza</i> (Edurne Murua eta Jose Aizpuru) eta <i>Artzantza</i> (Mikel Mandiola). <i>Ogia egitea</i> (Sagaspe) ere izan daiteke beste hartu-eman ikastaro bat. Ikastaro hauek, ohi bezala, urteko edozein garaitan egin daitezke Jose Luis Elosegiren hitzaldia. Sekulako arrakasta izan zuen, astean zehar izanda, 50 lagunetik gora elkartu baitziren. Datorren urtean errepikatze modukoa. Ordu erdi beranduago, hobeto, 18:00etan, alegia Porrotxen <i>herrigintzaz eta irrigintzaz</i> eta Perurenaren hitzaldia. Zoragarri! Horrelako hitzaldiak grabatzea ondo legokeela komentatu dugu; gerora biltegi bat sortzeko herrian bertan egindako lanekin. Beste herri batzuetan nola gordetzen dituzte horrelako gauzak? Aimarrekin hitz egitea komeni da Jesus Artolaren argazki emanaldia. Aurrerago beste zerbait egitea planteatu diezaiokegu, formatua aldatuta-edo Kirolarien mahai-ingurua. Beti izaten da azken momentuan ezingo dela etorri esaten duenen bat, baina aurten bizpahiru izan dira, eta azken astean zalapartaka beste batzuei hots egin diegu. Hala ere, balorazioa ona izan da. <p>Kirolariekin egiten den bezala, beste disziplina bateko jendearekin ere egin</p>		

	<p>daitekeela antzeko zerbait komentatu dugu; izan musikari, irratitelebistako esatari, sukaldari, aktore, dantzari, idazle edo egoki iruditzen zaizkigunekin. Hainbat disziplinatako jendea ere elkartu daiteke (ez da ideia hau ateratzen den lehen aldia, baina hortxe jasota, datorren urtrako)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Txatxilipurdi. Ondo, baina beste baterako herrian bertako gazteek egin lezaketeantzeko zerbait
MAKILARI	<ul style="list-style-type: none"> • Datorren urterako 50 bat ale gehiago ateratzea komeni da • Ekainaren 22a izango da argazkien jolaseko erantzunak bidaltzeko azken eguna
EUSKARALDIA	<p>Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan egingo den ekimena izango da, eta Gabiriak euskaraldian izena eman du. Uda ondoren hasiko gara lanketarekin. Horretarako, irailaren 5ean, 20:30ean egingo dugu lehenengo bilera. Informazio gehiagorako jo www.euskaraldia.eus webgunera! Hemen beste lotura interesgarri bat https://vimeo.com/250125604</p>
UEMA	<ul style="list-style-type: none"> • Goierriko UEMako udalerrien bilgunea sortzeko proposamen dugu mahai gainean, bertan udalerrri horietako ideiak, kezak eta plangintzak konpartitzea da asmoa. Horrez gain, aukera ona izan daiteke euskararen inguruan lanean gabiltzanok elkar ezagutzeko eta elkarlanerako bideak irekitzeko. • Euskarazko produktuen katalogoak eskatu ditugu (100 ale), 0-12 eta 12-16 urte bitartekoentzat. Horietan, besteak beste, euskarazko liburuak, komikiak, aldizkariak, musika, filmak eta APPak daude. Saltseatu nahi baduzue jo www.katalogoa.eus webgunera. 12 urte bitartekoentzakoak eskoltik bana ditzakegu eta besteak liburutegitik edota gazte lokaletik • <i>Gabiriako diagnostikoaren eskema eta 2018ko euskararen erabilera sustatzeko plana bidlari dizkizuet atxikita. Eman begiratu bat horiei!</i> • 2018ko lehentasunen artean euskalduntze-alfabetatze taldea sortzea komentatu genuen. Horretarako, herrian kanpaina egin beharko dugu, helburua datorren urterako taldea sortzea baita. Irailaren 5eko bilera horretara eramango dugu informazioa eta kanpaina egiteko euskarria. Matrikulazioa irailean izango da, eta kurtsua urria hasiko litzateke, taldea sortuz gero. Lehenengo etxer etxe banatuko dugu euskara ikasteko aukera dagoela; horrez gain, kartelak, webgunea, watchappa... erabiliko ditugu. • <i>Herrian bertan ematen diren hainbat ikastaro gaztekeraz izaten dira: Ez dira udalak antolatutakoak, baina Yoga, esaterako, udalaren lokal batean egiten dute; judo eta defentsa pertsonala Erbie elkartearen egiten ditzute. Nola bideratu hau guztia? Yogako oinarrizko hiztegitxorik dagoen galdetu UEMAkoei; Jon Ander Larrañagarekin hitz egin, judokoarekin egon den galdetzeko; defentsa pertsonaleko ikastaroak segitzen al du?</i>

HIP HIP URRRI!	Azken urteetan umeentzako (jolas kooperatiboak...) eta gazte zein helduentzako (altxorraren bila...) ekintzak antolatu ditugu. Ekimen hau, ordea, familiei zuzendutako ekintzak antolatzeke sortu zen, eta aurtengorako beste buelta bat ematea komeni da.
LEGAZPIKO BANDA	Asier Osinaldek Legazpiko bandan jotzen du, eta prest daude afari truke Gabirian jotzeko. 50 bat lagun izango dira eta ostiral arratsalde-iluntzeren batean emango lukete ikuskizuna. Irailaren 28an edo urriaren 5ean???
MURALA	Euskara eta Gabiria gai hartuta mural lehiaketa egin genuen iaz, eta San Joan bezpera egunean jarriko dugu murala eskola azpiko horman. Sua piztu aurretixoan egingo da mural bistaratzea.

HURRENGO BILERA

irailaren 5ean, 20:30ean

***EUSKARALDI* Ari buruz!!!**